

EKITALDI POLITIKOAK

MAYORREN WEBGUNEAREN AURKEZPENA



TOKIA: Donostiako Miramon Parke Teknologikoan. **HIZLARIAK:** Jaime Mayor Oreja eta Carmelo Barrio. **GERTAKARIAK:** Jaime Mayor Oreja PPko lehendakariak bere webgunea aurkeztu zuen, eta herenegun Xabier Arzalluzek esandakoei erantzun zien.



JAIME MAYOR OREJA (PPren lehendakariak)

«Maiatzaren 13an euskaldun guztiok EAJ Gobernutik kanpo utzi beharko dugu betiko»

«Guk politika egiteko modu eta estilo berri bati ekin nahi diogu, herri hau, mugak gaindituz, irekiagoa izateko»

Arzalluz «beldurrari leial» zaiola esan du Mayorrek

PPk «etorkizuna eta politika egiteko modu eta estilo berria» eskaintzen duela esan du

aldentzen jarraitu nahi badu, jaramon egin beharko diogu eta maiatzaren 13an euskaldun guztiok Gobernutik kanpo utzi beharko dugu betiko», adierazi zuen PPko lehendakariak, eta, horrez gain, EAJk etorkizunerako «proposamen bakar bat» ere ez duela egiten esan zuen.

«Politika egiteko modu berria»

Mayorrek adierazi zuen beraiek etorkizunari begiratzen diotela, eta «politika egiteko modu eta estilo berri bati» ekingo diotela, «herri hau, mugak gaindituz, irekiagoa izateko». Modu horretan «herria askeagoa eta toleranteagoa» izatea lortu nahi dutela esan zuen.

Bestalde, Carlos Iturgaitz Euskal Herriko PPko presidentek salatzen zuen EAJ kanpaina «zikina» egiten ari dela. Era berean, Arzalluzi mintzatuz, esan zuen jada inork ez dituela sinesten «aitona Arzalluzen» istorioak.

«Esperantzari atea irekitzeko botoa» eskatu zuen Iturgaitzek, Euskal Herrian «lasaiago» bizi ahal izateko aldaketa izan dadin.

Agentziak | DONOSTIA

Jaime Mayor Oreja PPko lehendakariak, Xabier Arzalluz EAJko lehendakariari erantzunez, «beldurrari leial» zaiola azaldu zuen, eta bere alderdiak horren aurkakoa egin nahi duela. Ildo horretan, bere ustez «iragana beldurra da», eta «Euskadi ezin daiteke iraganean eta beldurtuta egon», azken urteotan beldurra ematen bakarrik jakin duen jendea egon arren.

Era berean, EAJk Lizarragaraziko Ituna sinatu zuenetik izan duen jarrera kritikatu zuen, eta esan egiten duen bakarra «bestelako gobernu batek egin dezakeenaren inguruan beldurra eragitea eta irainka ibiltzea» dela. «EAJ Gobernutik aldendu zen, eta kanpaina honetan

Piquek «zentzugabetzat» jo du Gernikakoagatik barkamena eskatzea

Agentziak | DONOSTIA

Josep Pique Espainiako Gobernuako Kanpo Harremanetarako ministroak «zentzugabetzat» jo zuen herenegun Juan Jose Ibarretxe lehendakariak Gernikako bonbardaketagatik barkamena eskatu izana. «Zergatik eskatu behar dugu barkamena, ez nekien eskatu behar genuenik, baina hainbesteko zentzugabeheria iruditzen zait, ez du merezi gure adierazpenekin ga-

rrantzirik ematea», adierazi zuen Piquek.

Mariano Raxoi Espainiako Barne ministroak, berriz, horren inguruan esan zuen «Euskal Herrian azkenaldian egiten eta esaten ari diren burugabekeriaren artean beste bat» dela.

Gobernuko bozeramaile Pio Cabanillasek esan zuen Ibarretxe «ideia eskasia» erakusten ari dela, eta Euskal Herriaren inguruan «ideia lehiaketa bat» egin beharko lukeela.



JAVIER ETXEZARRETA/EFE

Jaime Mayor Oreja, bere webgunearen aurkezteko atzo Donostian egin zuen ekitaldian.

EUSKAL HERRIA aurrera

NAZIO MITINA belodromora

larunbata 5ean, arrats. 6etan

Arnaldo Otegi
Jone Goirizelaia
Antton Morcillo

BOZKATU

